

PELLO ZUBIRIA

Energi-faxismoa petrolio urriak berotzen du

James Carter AEBetako lehendakariak –gaur liberalismoaren eredutzat daukatena– finkatu zuen bere dotrina: AEBentzako lehentasun estrategikoa zuela energi iturriak eta pasabideak kontrolatzeak. Liberala? Energi-faxismoaren aitaponteko izendatu dute zenbait aditu kritikok.

MICHAEL T. KLARE IRAKASLE eta idazle iparramerikarrak petrolio eta geopolitika lotzen dituzten bi liburu ezagun dauzka idatzita: *Energi iturriengatik gerrak: gatazka globalerako etorkizuneko eszenategia* eta *Odola eta petrolio*. Orain, energiaren geopolitikaren harrietatik tiraka, energi-faxismo globalaz abisu ematen duen artikulu bat plazaratu du: *Mundu mailako 'energiaren bila' lasterketa eta bere ondorioak*. Katedratikoa eta Human Rights Watch-eko burukidea den Michael T. Klareren agiria *ZNet* agerkari elektronikoan irakur daiteke, ingelesezko originalean bezala gaztelaniazko itzulirik.

Energi iturrien kontrolak XXI. mendeko geopolitikan zer nolako garrantzia hartu duen anizteta eta askok esplikatzen dute, tartean Michael T. Klarek berak. Oraingo artikularekin, hori sistema politikoetan energi-faxismoaren sorreran eta indartzean mamitu daitekeela ohartarazi du irakasleak. “Energi-faxismoak –idatzi du– planeta honetako pertsona guztiengan izan dezake eragina. Batzuk behartuta aurkitu gaitezkeelako energi horniketa segurtatzeko atzerrietan egingo diren gerrak finantziatu, eta are, haietan parte hartzea. Beste asko, egongo direlako energi iturria kontrolatzen dutenen mende, Ukraina, Bielorrusia eta Georgia Gazprom monopolio errusiarraren atzaparretan dauden moduan. Edo denok aurkitu gaitezke estatuaren zaindaritza zorrotzaren pean,

behartuta demostratzena dagokiguna baino gasolina gehiago xahutzen ez dugula edo energiaren komertzioaren legez kontra ari ez garela”.

Duela gutxi ARGIAk deskribatzen zituen distopia edo anti-utopia beltz horietakoren bat marraztu ordez, Michael T. Klarek energiaren urritasunak jadanik martxan jarri dituen mekanismo batzuk deskribatu ditu. Energia da, izan ere, faktore politiko nagusienetakoa. Eskaria etengabe ari da handitzen –1955etik 2005era %450ean handitu da energi eskea– eta aldiz eskaintza ezin izan da hein berean zabaldu. Okerregoa dena: gaur aditu gehienek aitortzen dute iturri fosiletan –petrolio eta gasa nagusiki– produkzioak edo goia jo duela edo jotzearen dela.

Gas eta petrolio urritasuna ezingo du ikatzak osorik bete, eta gainera aldaketa klimatikoaren kontrako neurriak hartu beharra egongo da. Panorama kaxkarra. Horregatik, energia ezin dute dagoeneko estatu aurreratuek merkatuaren mende utzi, beren lehentasunetan hartu behar dute. Lehen ondorioak ikusten ari gara: “Nazio kontsumitzaileen energi politikak militarizatzen, eta aldi berean, erregimen bezeroen errepresio ahalmenak sendotzen direnean, energi-faxismoz gobernatutako mundu baten zimenduak ari gara jartzen”.

Kontsumitzaileen aldetik, AEBetako armada munduko petrolio zerbi-

tzuaren zaintzeko tresna bihurtu dela dio Michael T. Klarek. Ez da gaur goizteko kontua, Jimmy Carter-ek ireki baitzuen bidea, “Carter dotrina” famatuarekin. Petrolio garraio mundu mailakoa segurtatzeko, AEBetako armadak bere antolakizuna aldatu du urteotan, buruzagitza barne. Estreina Persiar Golkoa ondo segurtatzen ahalegindu ziren yanikiak, baina geroztik Carter dotrina –agintean demokratik nahiz errepublikarrak egon, berdin dio– beste eskualdeetara zabaldu dute. Bitara nagusiki: Kaspio itsaso ingurura (Azerbaijan, Georgia, Kazakhstan, Kirgizistan eta Uzbekistan) eta Afrika Mendebaldera, batik bat Nigeriara eta Gineako golgora. Karibea ahaztu gabe, noski.

Ororen buru, AEBetako armadaren aurrekontuaren laurdena –100.000 milioi dolar– Persiako Golkotik datorren petrolio babesteko darabilte; alde batera utzita Irakeko gerra orain arte kostatu den dirutza. Baina Michael T. Klareren ustez, askoz urrunago iritsi daitezke hurrengo urratsak: gero eta garestiagoa den energia erosi ahal izateko zergak igo beharko dituzte AEBetan eta politika sozialak gehiago murriztu, agian derrigorrezko soldaduska birplanteatu beharko dute...

Energia, estatu afera da

Txanponaren beste alde beren zorupean energia daukaten herrialdeek osatzen dute. Australia, Kanada, Kazakh-





Goiko argazki handian, ezkerrean, Amerikako Estatu Batuetako Itsas Armada ofizial bat ikusten da –Erickson Dennis Tagudar izenekoa, fotoa erakusten duen armadaren web gunean esplikatzan dutenez– beste militar bati Khawr Al Amaya petrolio portuaren xehetasunak erakusten. Persiar Golkoko iparraldean dago petrolio nagusiki AEBetara bidaltzeko ontziratzen den plataforma hau, eta ofizialaren ondoan ikusten den metrailadoreak ondo deskribatzen du kaiaren militarizazio maila. Ipar Amerikako armadak urtean gastatzen duen dirutzaren laurdena Ekialde Hurbileko petrolio iturriak zaintzeko eta handik AEBak arte petroliontzien egiten duten bidaia gertutik segitzeko erabiltzen dute. Ez dirudi, beraz, esajeratua AEBetako armada petrolioaren jendarme bihurtu dela esatea. Beheko bi komikietan, ezkerrekoak II. Mundu Gerrako eszena baten parodia egiten du. Berrikitan Clint Eastwoodek aurkeztu duen *Flags of Our Fathers* (*Gure gurasoen banderak*) filma Iwo Jimako guduan dago girotua, ikur bihurtuko zuten argazkia atera zuten uhartean; komiki honetan soldadu yankiek jaso nahi duten banderaren masta marrazkilariak petrolio dorre bihurtu du. Eskuineko irudiak Vladimir Putin irudikatzen du, Charles Chaplinen *The Great Dictator* (*Diktadore Handia*, Oliver marrazkilariak hemen *Democratore Handia* bataiatu duena) pelikula gogorarazten duen itxuran: Hitlerren ordez Putin datza, mundua filman bezala ostikoka erabiliz, aldi berean dantza errusiar bat eginez, petrolio daraman hodia kontrolatzen duen giltzaren gainean.

tan, Kuwait, Nigeria, Qatar, Errusia, Saudi Arabia, Venezuela, Iran eta Irak dira, nagusiki. Guztien artean, Errusiak gai honekin aurkitu du geopolitikan bere indarra berriro erakusteko aukera.

Errusia gas naturaletan munduko txapelduna da, ludi osoan eskuragai dagokeen gasaren %27 bere lurpean datza eta. Europak errusiarrei erosten die kontsumitzen duenaren %34. Petroliotik bera da bigarren, Saudi Arabiaren atzetik. Eta energia nuklearraren ere nagusi da, 31 zentral atomikorekin. Horrek guztiak ematen duen indarrak aspaldi ohartu zen Vladimir Putin, bere doktoradutzako tesia ere gai honi eskaini ziolako: “Lehengai mineralak Errusiako Ekonomia Garatzeko Estrategian”.

Ideia hori buruan, Ieltsinen urteetan pribatizatutako gas eta petrolio konpai-

niak berriro estatuaren eskuetara bihurtu ditu Putinek. Ondoren, mugakide dituen eta energia beharrean dauden herrialdeei presio egiten hasi da: ikusi Ukrainarekin, Lituaniarekin, Georgiarekin eta azken hilabeteotan Bielorrusiarekin gas eta petrolio hodiak direla eta izandako gatazkak eta Moskuk egindako xantaiak. AEBen alderantziz, Errusiak berak daukan energia darabil ingurukoak presionatu eta etekin diplomatikoak ateratzeko.

Michael T. Klarek arriskutzat dakusan energi-faxismorako hirugarren ardatza indar nuklearraren bizkorraldian datza. Petrolioaren prezioa igoztean hasi zen berriro aipatzen zentral nuklearrak ugaritzea mesedegarria litzatekeela, baina klima aldaketa dagoeneko gainean dugula konfirmatu denean –aurtengo neguak horretara-

rako apropos antolatua dirudi– nuklearraren inguruko politikak atera dira eztabaiden mahaietara.

Herritar burutsu askoren oposizioa gain, bestelako oztopoak badira zentral atomiko berriak eraikitzeko: eraikitzeko kostuak izugarriak dira, zentralak zahartutakoan horiek desmontatzea zenbat kostatzen den orain jarri da agerian, hondakinen arazoa konpondu gabe dago, eta Three Mile Islanden 1979an eta Txernobilen 1986an gertatutakoak bezalako istripuek ikara eragiten dute.

AEBetako ikuspegitik, irakasleak ohartarazten du estatua hasi dela herritarren oposizioa zanpatzeko urratsak ematen. Zeharka aipatu du bat oso garrantzizkoa: gas naturala lantzeko fabrikak eraikitzeko baimenak emateko orduan, estatu, eskualde eta udalei esumen oro kendu dizkie gobernuak eta dena aginte federalaren esku utzi. Zirrikitu horretatik pasa litezke zentral nuklear berriak ere, lekuko agintariei eskuak lotuz eta protestan kalera ateratzen diren manifestariei polizia federala eta ejertzitza bidaliz. Ondoren, zentral nuklear gehiagok –politika antiterroristaren aitzakiatan– bertako langile, subkontratatu eta guztien familien gaineko kontrola zorroztea ekarriko dute.

Ororen buru, Human Rights Watcheko burukide honek ondorio hau dakusa: “Gobernuek lider gehienek energi urritasunak ekarritako arazoei aurre egin nahi diete estatuen kontrola handituz eta indar militarri leku handiagoa emanaz. Joera horri aurre egiten ez badiogu, gure etorkizuna energi-faxismoa izan daiteke”. n

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 4 - 20064 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL: 943 420 624

G A R A N T I A